

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren funtsezko jarduerak aplikazioaren funtzionamendu egokia bermatzeko ezinbestekoak dira. Jarduera hauek gure negozio-eredua martxan jartzeko eta balio-proposamena erabiltzaileei modu eraginkorrean eskaintzeko oinarriak dira. Gure kasuan, helburua ikasleei orientazio akademiko egokia ematea da, haien gustuak, gaitasunak eta pentsatzeko modua kontuan hartuta, galdetegi baten bidez.

Lehenik eta behin, ekoizpena da gure funtsezko jarduera nagusietako bat. Ekoizpenaren barruan sartzen da aplikazioaren garapena eta programazioa. Horrek esan nahi du aplikazioaren egitura teknikoa sortzea, funtzionala, erabilgarria eta fidagarria izan dadin. Jarduera hau ezin da kanpoko enpresen esku utzi, gure know how-arekin zuzenean lotuta baitago. Gainera, orientazio bokazionalako galdetegiaren sorrera eta etengabeko eguneraketa ere ekoizpenaren barruan sartzen dira. Galdetegi hau da aplikazioaren muina eta bertan jasotzen diren galderak eta erantzunen analisia funtsezkoak dira gomendio egokiak emateko.

Bestalde, erabiltzaile-interfazearen diseinua ere ekoizpenaren parte da. Aplikazioa intuitiboa eta erakargarria izan behar da, erabiltzaileek erraz ulertu eta erabil dezaten. Horrez gain, plataformaren mantentzea eta etengabeko hobekuntza funtsezko jarduerak dira, aplikazioa beti eguneratuta eta ondo funtzionatzen duela ziurtatzeko.

Bigarrenik, arazoak konpontzea da gure enpresaren beste jarduera garrantzitsu bat. Jarduera honen barruan sartzen da akats teknikoen zuzenketa, aplikazioak hutsik edo erroreak baditu azkar konpontzeko. Era berean, emaitzen zehaztasuna hobetzea oso garrantzitsua da, erabiltzaileei ematen zaizkien gomendioak ahalik eta egokienak eta pertsonalenak izan daitezen. Horretarako, galdetegiaren emaitzak aztertu eta hobekuntzak egin behar dira. Erabiltzaileen zalantzak eta arazoak konpontzea ere jarduera honen parte da, erabiltzaileei laguntza emanez eta haien esperientzia hobetuz. Gainera, aplikazioa etengabe egokitu behar da ikasketa berrietara eta hezkuntza-sisteman gertatzen diren aldaketetara.

Azkenik, plataforma edo sareko jarduerak ere ezinbestekoak dira. Jarduera hauen artean daude zerbitzariaren eta datu-basearen kudeaketa, aplikazioak informazioa modu seguruan gordetzeko eta erabiltzeko. Datuen analisia ere funtsezko jarduera da, jasotako informazioa erabiliz gomendio-sistema hobetzeko. Horrez gain, segurtasuna eta datu pertsonalen babesa oso garrantzitsuak dira, erabiltzaileen informazio pribatua behar bezala babesteko. Azkenik, eguneraketak eta funtzio berriak garatzea beharrezkoa da aplikazioa lehiakorra eta erabilgarria izaten jarrai dadin.

Ondorioz, gure enpresaren funtsezko jarduerak ekoizpena, arazoen ebazpena eta plataforma-kudeaketa dira. Jarduera hauek guztiak behar bezala antolatuta eta lehentasunak ezarrita, gure balio-proposamena arrakastaz eskaintzea posible izango da.